



BALIO PROPOSAMENA

Arazoak eguneko pastillak hartzeko?

Gure produktua **pastillero elektroniko** bat da, mugikorrarekin eta pultsera bibratzaile batekin konektatuta, zure pastillak noiz hartu behar duzun gogorarazteko.

Produktu hau, pastillak hartzeko **zailtasunak** dauzkaten **pertsonentzako** bideratuta dago, nerabe, gazte edo helduek erosi ditzakete.

Aldi berean, gure produktua oso erabilgarria da, aplikazioaren eta pultseraren bidez bidaltzen diren seinaleengatik zure tratamendua segurtasun handiagoarekin eramaten duzulako.

Pastilleroa hainbat **sentsorez** osatuta dago, (pastilleroaren kasilla bakoitzean, sentsore bat egongo da, zein pastilla hartzen duzun jakiteko). Pastilleroa mugikorrean instalatu beharko duzun aplikazio batekin konektatuta dago. Eta pastilla hartzeko momentuan, aukeratu dezakezu mugikorrak abisatzeak, edo pultsera baduzu, honek bibratzeak.

Pultserak, pastilla hartzerako momentuan bibratu egingo du. Bibratzen dizun momentuan ez baduzu pastilla hartzen 10 minuturo berriro abisatuko dizu 30 minutu pasa arte.

Gainera, pultserarekin edo mugikorrarekin bakarrik, **familiko kide** bati **abixu zuzen** bat pasako zaio **SMS** baten bitartez, kontaktu hau aplikazioa konfiguratzerakoan jarriko duzu.

Gure web orrialdean bezeroekin kontaktuan jartzen gara, chat baten bidez edo zenbaki baten bidez hitzegin dezakegu beraiekin.

BIZION konpetentzi bat dauka, farmazietan saltzen dituzten pastilleroak. Baina gure produktua abantailaz josita dago:

- **Sendagaiaren jarraipena hobetzen du**; pastilleroak zure botikaz arduratzen da, eta horrek tratamenduaren eraginkortasuna handitzen du.
- **Segurtasuna eta lasaitasuna** eskaintzen ditu: pastilla hartzen ez baduzu, sistemak familiari jakinarazten dio, eta horrek lasaitasuna ematen die bai erabiltzaileari, bai senideei.

- Sentsoreen bidez funtzionatzen duenez, **erabiltzeko erraza eta modernoa** da.

Azkenik, gure produktuan konfiantza izateko, web orrian ikusgai edukiko dituzte gure bezeroen erosketen argazkiak eta reseñak, fidagarriagoa izateko. Hau, gure bezeroek konfiantza gehiago edukitzeko egiten dugu, hau da, produktua erosi baino lehen fidatzeko eta horren ondorioz, produktua beldurrik gabe erostea. Horrela, bezero berriak erakarriko ditugu eta **konfiantza** transmitituko diegu.

Garapen Jasangarriko Helburuak Nazio Batuen 17 helburu dira, mundu jasangarriagoa, bidezkoagoa eta pertsona guztientzat bizitza zintzoagoa eskaintzen dituztenak. Helburu hauek planetaren babesa eta gizartearen ongizatea bermatzen dituzte.

Guk gure enpresan bi helburu nagusi bete nahi ditugu: **osasuna eta ongizatea** sustatzea eta **energia eskuragarri eta ez kutsatzailea** eskaintzea.



Lehenik, garapen jasangarriko 3. proposamena aukeratuko dugu, gure helburu nagusia osasuna eta gizartearen ongizatea bermatzea delako, eta horregatik oinarri horrekin lan egingo dugu.



Bigarrenik, garapen jasangarriko 7. proposamena aukeratu dugu, gure produktua egiteko momentuan ez dugulako gure ingurua kutsatuko, hori betetzeko, hau egingo dugu:

- Produktua herrialde berean fabrikatu eta prestatuko da, garraioa eta horri lotutako kutsaketak murrizteko.
- Bidalketak ontzi birziklagarrietan egingo dira.